

**ITSASLAPURREK, BALEZALEEK,
MARINELEK... DENEK BEREN GARAIA
IZAN ZUTEN. ORAIN ZUREA DA.
GOZA EZAZU.**

GOZA EZAZU ZURE MOMENTUAZ



**Lekeitioko
Udala**



Lekeitioko Udala

TURISMO BULEGOA

Independentzia enparantza, z/g
Tel.: 94 684 40 17 · Fax: 94 684 41 67
turismo@lekeitio.eus
www.lekeitio.org

Lekeitio estuario txiki batean kokatutako herrixka bat da, mendiz inguratua dago eta egunean bi aldiz bertaraino oinez joateko aukera eskaintzen digun uharte batek babesten du. Baina Lekeitio, batez ere, itsasoarekin lotua egon da eta oraindik ere hala dago, eta horrek esan nahi du arrantza, merkataritza, kultura, nortasuna eta oso historia interesgarriak ditugula bertan.

Bere kaleetatik ibili dira balea-arrantzaleak, piratak, merkataria, artisauak, esploratzaileak, neskatilak, arrantzaleak, baita austriar-hungariar enperatriz bat ere. Eta hemen jarraitzen ez badute ere, horiek guztiek utzi duten aztarna oraindik ere igarri daiteke erdigune historikotik, harresi ingurutik edo kaitik gabiltzanean.

Beren garaia eduki zuten eta ongi aprobetxatu zuten. Orain zure garaia da. Goza ezazu!




EUSKADI
BASQUE COUNTRY



BILBAO
BIZKAIA
be basque

SANTA KATALINA

Gaur egun sateliteak, irrati-faroak, eta komunikazio, lokalizazio nahiz orientaziorako sistemak ditugu, eta horrexegatik ezin dugu imajinatu ere egin nolako garrantzia izan zuten itsasargiek. Itsasargien argiaren arabera, kaira iritsiko ginen edo itsasoan galduko ginen.



IX-XVII: BALEAZALEAK ETA MARINELAK

Baleak salerosketarako harrapatzen hasi ziren lehenak euskal itsasontziak izan ziren. VIII. mendetik XVII. menderaino, beren eskuetan egon zen balearen ehiza eta merkataritza. Horri esker, Lekeitiok sekulako oparoaldia bizi izan zuen.



Balea-ontziak

Euskal balea-ontzi ohikoek garaiagoa zuten albo, bi gaztelu eta hiru masta izaten zituztelako. Ozeanoa zeharkatzeko egokiagoak ziren eta, gainera, garai hartako gainerako itsasontziek baino karga-ahalmen handiagoa izaten zuten. Lekeition oraindik ere hortxe dauzkagu garai bateko ibai-bazterreko ontziola horietako bi, eta garai hartan mundu osoko itsasontzirik onenak bertan eraikitzen zituzten.




Edabe magikoa

Euskal marinelek ez zuten urik edaten, sagardoa baizik (2,5 litro pertsonako eta eguneko), eta horri esker, dietarekin lagunduta, eskorbutoa harrapatzetik libre zeuden.

XV-XVIII: MERKATARIAK ETA ITSASLAPURRAK

Lekeitiarrek merkataritza-sare zabal bat eratu zuten, iparraldeko herrialdeetatik hasi eta mediterraneoraino zabaltzen zena. Betidanik izan gara armadore, marinel eta merkatarari. Baina garai haietan armadore eta merkatarari izateak sarritan itsaslapurretan edo piraterian aritzea eskatzen zuen, garaiko baldintzek horretara behartzen zutelako.

Iñigo de Artieta (Merkataria eta kortsarioa)



Non Gogoa, Han Zangoa

Non gogoa, Han Zangoa... dio euskal esaera zahar batek, eta oso egokia da garai bateko marinel, merkatarari nahiz itsaslapurrentzat mundua oso zabala zen garai haietan. Eta halaxe ikus dezakegu Lekeitioko basilikan ere. Oso aberatsa da itsasoz bestaldetik ekarritako erlijio-ondarean: alabastroa, laudak, erretaula flandiarra... eraikinak berak duen tamainaz eta aberastasun arkitektonikoaz gain.



Kortso Agiria

Kortso Agiriaren bidez monarkiak zigorgabetasuna ziurtatzen ziren beren itsasontziak armaz bete eta erresuma etsaietako merkatariei eraso egiten zieten marinelei.

XIX: ARRANTZA

XIX. mendetik aurrera, monarkiak estatu bihurtu ahala eta mugak, aduanak... finkatu ahala, merkataritza librea gero eta mugatuagoa geratu zen.

Lekeitiok itsasoari loturik jarraitu zuen, baina hemendik aurrera arrantza bihurtuko da jarduera nagusia. Artisauen jarduera horrek oraindik ere parte garrantzitsu izaten jarraitzen du, bai sinbolikoki eta bai ekonomikoki ere.



Aniztasuna eta kalitatea

Lekeition baxurako arrantzan aritzen direnek era askotako arrainak harrapatzen dituzte, eta arrain horiek ezin hobeto uztartzen dira inguruko baratzetako barazkiekin.

20KO HAMARKADA ZORIONTSUA

20ko hamarkadan baikortasun-giro handi bat zabaldu zen Lehen Mundu Gerra amaitu zenean. Aurrerapen teknologikoez, sozialez eta ekonomikoez fenomeno berri bat ekarri zuten: turismoa.

Lehen mundu-gerran euskal kostaldera babes bila etorri zen goi-burgesia europarrak abiarazitako bideari jarraiki. 20ko hamarkadan turismoa finkatzen hasiko da, eta gainera, aberastasunak, ideiak eta kultura ekarriko ditu.



Zita enperatriza

Lehen Mundu Gerraren ostean, eta Portugalera erbesteratu ondoren, Zita enperatriza Lekeitiara etorri zen, bere familia guztiarekin, babes bila. 7 urtez Uribarren Jauregian bizi izan ziren, eta azkenik, Belgikara joan ziren.

LEKEITIO GAUR EGUN

Gaur egun, kirol-jarduerez, paisaiez, gastronomiaz, ondareaz... goatzeko oporleku atsegina da Lekeitio.

Garai batean leku urrunetatik historiak ekarri zituzten itsaslapur, merkatari, balea-arrantzale eta marinel haiek ibiltzen ziren kale eta taberna berberetan, orain surflariak, belaontzi, arrantza eta trekkingaren zaleak, edo mundu osotik etorritako bidaiari kuxkuxeroak topatuko dituzu.



Dagoeneko Lekeitioan zaude eta maletak utzi dituzu, baina, nondik hasiko zara? Asko dago ikusteko, asko dago egiteko, baina zer da galdu behar ez zenukeen lehen gauza?

Sail honetan, bete-betean goatzeko gakoak emango dizkizugu. Zer egin, zer ikusi, zer jan eta beste zenbait aholku baliagarri.



**... ETA ORAIN,
ZER?**

JAN ETA EDAN

EZ IBILI PRESAKA, ASTIA BADAGO ETA ERREPIKATU DAITEKE




Den-dena jaten eta edaten ospatzen den toki batera iritsi zara. Euskal sukaldaritza mundu osoan ezaguna da, baina goi mailako sukaldaritzaz gain, adituei deigarrien egiten zaiena, sukaldaritza hori bizitzako arlo guztietan presente egotea da. Txokoetan, tabernetan, etxeetan eta elkarrizketa askotan...

BASOERDIAK HARTZEA

Euskadi ezagutzen baduzu, honezkero jakingo duzu herrialde honetan lagunarte giroan sartzeko ohiko modu bat tabernaz taberna ibiltzea dela "poteak" hartuz, garagardo neurri txikika (zuritoak) edo ardo basoerdika (txikitoa). Ohikoena txikito horiekin batera pintxoak hartzea eta hizketaldi luzeak izatea da, eta oso sarritan kantuan amaitzen dira horrelakoak. Lekeition "txikitoak" hartzeko zenbait inguru daude, eta bertan era askotako "pintxoak" jan daitezke.

ERRONDA ETA POTEA

Euskal tabernetan eskatutako guztia batera ordaintzeko ohitura dago. Erronda berdintsua izaten da gutxi gorabehera, baina pintxoak aldatu egiten dira taberna batetik bestera. Ordainketa antolatzeko bi modu daude: erronda ordainduz edo potoa jarriz. Lehenengoan, taberna bakoitzean ordaindu beharrekoaren ardura hartzen du pertsona bakoitzak, eta bigarrenean, diru-kopuru bat jartzen da eskotean eta norbaitek eramango ditu kontuak.



PINTXOAK HARTU EGITEN DIRA

Euskadin pintxoak ez dira eskatzen, hoztutako beira-arasa baten barruan egon ezean. Utzi alde batera lotsak, hartu zure pintxoa lasaitasun osoz eta ez zaitez kezkatu adierazi behar duzun ala ez. Bukaeran, erronda ordaindu behar duzuenean, jan dituzuen pintxoak jakinarazi eta bakean.

Era askotakoak topatuko dituzu, tortillak, gazituak, txipiroiak, mokadutxoak, txibierroak... Lekeition Taberna bakoitzak bere espezialitatea du. Ezagutu ezazu!

JOAN BAINO LEHEN PROBATU BEHARKO ZENITUZKEEN 4 SALTSA

Euskal sukaldaritzaren barruan prestakuntza-modu eta saltsa ugari daude, baina hemengo lau hauek ez zenituzke inola ere galdu behar.

1. BIZKAITARRA

Gorria da eta oso goxoa dago, baina ez zaitez nahasi, ez baitu tomaterik (batzuek diote apur bat bota dakiokela...).

2. PIL-PILA

Erraza, leuna eta ezin goxoagoa, tenperatura motelean egindako sukaldaritza tradizionalaren miraria. Euskal hitz bat dago sorburuan, eta irakinaldi motela esan nahi du. (aldiz, gal-gal hitzak irakinaldi ertaina eta bor-bor hitzak irakinaldi bizia esan nahi dute).

3. BELTZA

Txipiroien ohiko saltsa da, eta inoiz probatu ez dutenei bitxia egiten zaie kazola beltza ikustea, baina berehala aldatzen dira iritziz, probatu orduko. Fina eta leuna da, eta lehenago probatu duzun ezeren antzik ez du.

4. SALSА VERDE

Legatzarekin erabiltzen da, Euskaditik kanpo "legatza euskal erara" izenez ezagutzen dena prestatzeko. Baina, berez, ez da legatzarekin bakarrik erabiltzen, eta euskaldunontzat saltsa berdea da, besterik gabe. Bere kolorearen sekretua perrexila da.



Pintxoak ez ezik, Lekeition modu tradizionalago batean ere jan dezakezu. Eserita, plater eta mahai-tresnez lagunduta, eta munduan famarik handienetako duen sukaldaritza dastatuz. Gustu eta poltsiko guztietarako egokiak diren menuak eta estiloak.

BATZUETAN TOPIKOAK EGIA DIRA



TXAKOLINA ETA SAGARDOA

Txakolina ardo gaztea da (nahiz batzuk onduak ere badiren), beltzak ere badaude, baina ohikoena zuria izatea da. Arrainekin batera edateko oso aproposa da. Euskadiko beste edari tipikoetako bat sagardoa da. Sagar autoktonoz egina dago. Euskal sagardoa, erabilitako sagar motarengatik eta prestakuntzan tenperatura baxuagoak erabiltzeagatik, urrundu egiten da beste batzuetatik eta zapore bereizgarri bat hartzen du.



ARRAINAK

Lekeitio arrantza-portu bat da oraindik ere eta, horrenbestez, itsasoko produktuak ugariak, freskoak eta era askotakoak dira. Parrillan, labean, bizkaitar erara, pil-pilean edo beste edozein modutara, ezin zara Lekeitiotik joan probatu gabe.



GOZOGINTZA

Gomazko karameloa" eska dezakezu, miazkatu eta "Mingorriri" itsasteko. (Deabru baten antzeko irudia da) Izozki Artisauak; txokolatzeko 1888ko iturriak; "Aittitta Makurra" bonboiak; eta jakina, Kolineta, Lekeitioko tarta tipikoa. Baina gainera, beste hainbat pastel tipiko ere dasta ditzakezu: euskal pastela, arroz-pastela, Karolina...

ZER EGIN

URETARA ANTZARAK



Hondartzak, portua, basoak eta mendiak. Lekeition toki ezin hobea da bizikletaz ibiltzeko, arraunean aritzeko eta itsasoko nahiz lehorreko kirolak egiteko. Baina halaber, mendiaren isiltasunaz, itsasoaren bakeaz eta zeruko izarrez gozatzeko ere bai, hiri handietako argi-kutsaduratik urrun...

URRATSEZ URRATS, SLOW KIROLAK

Lekeition portu kuttun bat, itsasadarra, estuarioa –Santa Katalina lurmuturrak babestutako senadiarekin– eta Garraitz uhartea ditugu, eta horrek guztiak toki ezin hobea bihurtu dute ur-kiroletan aritzeko.



SURFA, PIRAGUA...

Lekeition Surfa, Kayaka, SUP eta, halaber, Coasteering egiteko aukera duzu. Pertsona aditua ez bazara, ez zaitez kezkatu, ikastaroak eta irakasleak kontratatu ditzakezu, baita materiala alokatu ere.



BIZIKLETA, TREKKINGA...

Gustuko duzuna trekkinga egitea edo bizikletaz ibiltzea bada, ez zaitez kezkatu, Lekeition hainbat ibilbide dituzu. Kostatik barrena doazen bidexkak edo Lea ibaian gora doana aibidez.

Errepideko bizikleta nahiago baduzu, Gontzugarairaino igo eta Bolibarreraino joan zaitezke (Simón Bolivarren jaiotxeraino) eta bertan Ziortzako Kolegiata bisitatu.



GR 123

Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea: Mandazainen antzinako ibilbidea da, eta bide hau erabiltzen zuten barrualde eta kostalde artean salgaiak garraiatzeko, eta hortik datorkio izena. Arabako Errioxan hasten da eta euskal kostaldeko portuetaraino iristen da. Lekeitiona bi bide iristen dira. Gaur egun, GR-38 izeneko mendi-bidea da.

UNE ZEHATZA

PORTUAN ARRAINA EROSTEA

Goizean portura hurbiltzen bazara, arrain-postu batzuk ikusiko dituzu; nekez aurkituko duzu hor baino arrain freskoagorik.

Arrantza-ontzi txikiak goiz horretan bertan ekarri duten arrain kopuruaren zati txiki bat izaten da, bertan saltzeko gorde dutena.



HAR EZAZU KAFE BAT ITSASOAREN AURREAN

Har ezazu kafetxo bat edo gustukoak duzuna, gozoki edo pintxo batekin, itsasoaren aurrean. Uribarren Jauregiaren terrazan egin dezakezu, edo Karraspio hondartzan dauden tabernetako batean, portuko terrazetan, edo baita kaian bertan ere, talatik.

Baina zorioneko bazaude eta zure egonaldiarekin egokitzen bada, goza ezazu galerna baten ikuskizun paregabeaz, leihatearen atzealdean ondo babestuta. Azaltzen zaila den plazer horietako bat da, baina aukera baduzu, ez ezazu galdu.



ARRANTZALEAK ETA ANTZARAK

Urdinez jantzi, "arrantzale" alkandora erosi eta murgil zaitez Lekeitioko herriko jaietan. Irailaren hasieran izaten dira eta "Antzar Eguna" izaten da bertako egunik handiena. Egun horretan herriko lagun-koadrilek txalupa zaharrak ateratzen dituzte, aurreko asteetan konpondu eta margotu ondoren, eta portuan sartzen dira abildade, zailtasun eta zorte pixka bat eskatzen duen lehiaketa batean parte hartzeko, eta horren helburua, soka lodi batetik zintzilik dagoen antzarari helduta irautea da (lasai egon zaitez, aspalditik ez da benetako antzararik erabiltzen eta).

BERTAKO PRODUKTUAK ETA ARTISAU-LANAK

Agian Lekeitioko zatitxo bat eraman nahiko duzu etxera. Arrantzaleen ohiko arropak, txapela bat edo marinelen ohiko jertseak, egurrezko edo zeramikazko kaitu bat... Lekeition zenbait tokitan topa dezakezu oparitxo hori, etxera eraman nahi duzun oroigarri hori, batzuk apaingarriak dira, besteak praktikoak, batzuk apeta baten ondorioak eta, jakina, jan daitezkeenak ere badaude.

ZER IKUSI

IKUSTEKORIK EZ. APROBETXA EZAZU

Ikustea merezi duten paisaia ugari eskaintzen dizkizu Lekeitiok. Baditu itsaslabarrak, flyscha ikusteko aukera ematen duten marearteko zabalgunek, marea behean dagoela aprobetxatzen baduzu oinez iristeko aukera ematen dizun uharte bat, ibaian gora joateko itsasadar bat, mendiak, basoak, larreak...

ERDIGUNE HISTORIKOA, JAUREGIAK ETA HARRRESIA

Lekeitiok bi auzo ditu alde zaharrean: alde batetik, arrantzaleen auzoa dago, portuaren inguruan, eta bestetik, "Dendarikale" izenekoa, merkatarien kalea. Eta bietan, jauregiak, jauretxeak eta eraikuntza modernoagoa duten beste eraikin dotore batzuk ikusiko ditugu tartekaturik. Herriaren inguru hau basilikaraino, udaletxeraino eta plazaraino hedatzen da (antzina, hondar-senadi bat zen plaza hori). Ingururik babestuena eta portutik urrunduena da, baina halaber, barrualdetik iristen diren bideen elkargunea.

ARRANTZALE AUZOA ETA KAIALDEA

Bisitariarentzat ingururik ikusgarriena da. Nahasia eta aldrebasa dirudien arren, diseinu simplea du: kai-lerroarekiko paralelo kale bat doa, Arranegi izenekoa, eta auzoa zeharka ebakitzen duten zenbait kale daude, harekiko elkarzut. Ohartuko zara auzo ikusgarria dela, badira jauretxe batzuk eta, halaber, itsasoko antzinako ekonomiari lotutako beste eraikin batzuk, baina batez ere arrantzaleen etxeak topatuko ditugu.

Ongi erreparatzen badiozu, horma handi bat ikus dezakezu Intxaurren eta Azpiri kaleen artean. Ez da antzinako harresiaren parte bat, suteen aurkako horma bat baizik. Horman bertan bermatzen diren etxeak baino garaiagoa da, eta bere eginkizuna hormaren alde bateko etxeak babestea zen, beste aldean suteren bat gertatzen zenean.

DENDARIKALE ETA ARRANEGI KALEAK

Dendarikale Lekeitioko alde zaharreko kale nagusia da. Harresiak zeuzkan bi ate elkartzen zituen eta Lea harana kostaldearekin lotzen zuen bidean zegoen. Behealdea denda edo tailerra izateko eta goiko solairuak etxebizitzetarako erabiltzen zituen antzinako egituraren arabera eginak daude bertako eraikinik zaharrenak. Horieta askok, gainera, baratza eder bat dute harresirainoko tartean.

Hasieran dendak eta tabernak dauden arren, Arranegi kalea oso bestelakoa da. Etxeen behealdeak ez zituzten egin denda izateko, baizik eta lonja izateko eta bertan arrantza-aparailuak gordetzeko. Porturantz doazen kale guztiak bertara ematen dute. Garai batean, egunsentia baino lehen, marinelak eta arrantzaleak esnatzeko ardura zuten emakumeak kalean gora eta behera ibiltzen ziren beren olio-lanparekin eta beren abisu-deiekin.

Teleskopioarekin edo gabe, mapa astronomikoaz edo begi hutsez, goza ezazu izarrei begira, egunsentia edo ilunabarra ikusiz. Santa Katalinatik, San Joandik... Baina gogora ezazu udan ere, euskal kostaldean, freskatu egiten duela gauez.

EGIN NAHIKO DITUZUN ARGAZKIAK

Toki eder asko daude argazki bat egiteko, baina denak ez dira hain ikusgarriak. Garraitz uhartea, Karraspio, Santa Katalinako itsasargia, Otoio edo Lumentzako igoerak, itsaslabarrak... Ilunabarraren zain geratzen bazara, eguzkia Otoioaren atzealdean ezkutatu baino lehentxeago, argi perfektua izango duzu...

OLATUAK

Lekeitioko senadia oro har lasai eta bare egoten den arren, marea bizietan, denboraleetan edo udako galerna-egunetan olatuak Talaren aurka talka egiten dutenean, senadiaren barrura sartzen direnean edo hondartzak irensten dituztenean sortzen den ikuskizunaz goza dezakegu. Bizkaiko Golkoaren indarra bete-betean ikus daiteke horrelako egunetan. Beharrezko babesneurriak hartzen baditugu, ikuskizun paregabea da.



BASILIKA

Lekeitiok antzina nolabaiteko indar ekonomikoa izan zuela argi ikus daiteke bertako kaleetan, jauregietan, elizetan, baina batez ere bertako basilikan. Eliza gotiko ederra da, batzuen ustez harresiaren parte ere izan zena, eta erretaula barroko zoragarria du barruan, penintsula osoko erretaularik onenetakoa omen dena.

Bai basilikaren kanpoaldeak eta bai barrualdeak ere bisita bat eta patxadaz une luze batez begira egotea merezi dute.



SANTA KATALINA ITSASARGIA

Bisita batean ikusteko toki eder paregabea da, eta taldeentzat eta hurrekin doazen familientzat ere antolatzen dira bisitak.

Lekeitioko itsas kulturari buruzko azalpen interesgarri bat ez ezik, badu, halaber, simulagailu bat. Itsasargi bat da, baina horrez gain, pasealeku eder bat ere bada, toki zoragarria eta hurrekin joateko interpretazio-gune paregabea. Itsasoz itsasargiraino joan ahal izateko modua eskaintzen dizun simulagailua dago bertan, baita informazio interesgarria ere, itsasoak Lekeitioren eta lekeitiarrei eman dien guztiaren inguruan.



GARRAITZ UHARTEAK TRIKIMAILUA DAUKA

Lekeition bazaude eta itsasoari begira jartzen bazara, Garraitz uhartea ikusiko duzu; San Nikolas izenez ere ezaguna da, garai batean bertan egon zen komentuariaren omenez.

Uharte bat da eta, beraz, igeri eginez edo itsasontziren bat erabiliz bakarrik joan gaitzke bertaraino, baina badu trikimailu bat. Itsasbeheraren zain egoten bazara, ikusiko duzu Karraspio hondartzatik oinez joan gaitzkeela bertaraino (argazkian).

Aprobetxa ezazu eguraldia, baina ezertara ausartu baino lehen, informa zaitez zer ordutan izango den itsasgora, bestela 6 orduz zain egon beharko baituzu itzuli ahal izateko.



KAXARRANKA

Euskal dantzak euskal kulturaren adierazpiderik interesgarrienetako bat dira. Batzuek esango dizute baletak gauza asko hartu zituela dantza hauetatik, izan ere, Nafarroako errege-erreginak Frantziako errege-erregina bihurtu zirenean, beren gortera eraman baitzituzten.

Baina Lekeition parerik ez duen dantza-aldaera bat ikusi ahal izango duzu, Kaxarranka deritzona, eta dantza honetan dantzariak bandera bat esku batean eta xistera bat beste eskuan duela, zortzi arraunlarik eusten dioten egurrezko kutxa baten gainean dantzatzeko.

EMAKUMEEN AURRESKUA EO EGUZKI DANTZA

Jatorriz, hiru aldiz dantzatzeko da udako solstizioa ospatzeko, eta horrexegatik esaten zaio "Eguzki dantza". Eguzentian, eguerdian eta ilundu baino lehen dantzatzeko da eguzkiaren bidaia laguntzeko.



INGURUAN

OGEIA

Ispaster udalerrriaren barruan aurkitzen den arren, merezi du bertaraino joatea, Ogeiako marearteko zabalgunea ikustera. Arrokez beteriko hondartza bat da, eta basoa itsasertzeraino iristen da.

Itsasgoran ia desagertu egiten da, baina itsasbeheran bertatik ibili eta flyscha ikusi dezakegu. Gainera, arretaz begiratzen baduzu, ikusiko duzu putzuak eta zuloak izaki bizidun askoren babesleku direla marea artean.



ITSASLABARRAK, HONDARTZAK ETA HERRIXKAK

Ibiltzea gustuko baduzu, Lekeitio inguratzen duen kosta sorpresaz beterik dago: itsaslabarrak, marearteko zabalgunek, itsasbeheran bakarrik ikusi daitezkeen kalak...

Autoa baldin baduzu, edo autobusa erabiltzea axola ez bazaizu (Bizkaibus) inguruko herriak bisitatu ditzakezu. Barrualdean Markina eta Bolibar daude, eta kostaldean, berriz, EA, xarma handiko herrixka bat, edo Elantxobe, Ogoño lurmuturraren atzealdean zintzilikatutako herri txiki bat, harri eta zur utziko zaituena.



BIDEARI JARRAITU

Done Jakue Bideak barrualdetik gurutzatzen du eskualdea. Horrela, oso kilometro gutxiko tartean ikusi ditzakezu Ziortzako Kolegiata gotikoa (Bolibarren), Arretxinagako San Migel Eliza, aldarea inguratzen duen megalito batekin (Markina-Xemeinen), eta Markina-Xemeingo erdigune historikoa, bere jauregi, dorretxe eta harzolarekin.



BASERRIA

Lekeitioren inguruan nekazaritzan diharduten herri asko daude, eta horietan, euskal baserriaren, basoetako paisaien, landutako soroen eta abeletxeen sustraiak ezagutzeko aukera izango duzu. Paisaiarekin dugun lotura hertsia adibide garbiak dira Ispaster, Amoroto edo Mendexa.



GLOSARIOA

Ingelezez

AGURRAK

Kaixo: Hello.

Agur: Goodbye.

Egun on: Good morning.

Eguerdi on: Good afternoon.

Arratsalde on: Good afternoon.

Gabon: Good evening (ogera joanbaino lehen "Good night" erabiltzen da).

Gero arte: See you later

Bihar arte: See you tomorrow.

ADEITASUNA

Mesedez: Please.

Eskerrik asko: Thank you.

Ez horregatik: you are welcome.

Barkatu: Sorry.

ERABILGARRIAK

Bai/ Ez: Yes/No

Ez dut ulertzen: I don't understand.

Zabalik: Open

Itxita: Closed.

Ondo: Good.

Asko/Gutxi: Many/Few.

TABERNAN

Kafesnea: Coffeemilk.

Ebakia: Macchiato (coffe with a dash of milk).

Kafe hutsa: Black Coffe.

Sagardoa: Cider.

Garagardoa: Beer.

Ardo (beltza/zuria/gorria):
Wine (red/white/rosé).

Ura: Water.

On egin: Enjoy.

Ona: Good.

Txarra/Bad.
